

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

“la Caixa” fundazioak 13,5 milioi euro erabiliko ditu 2016an Nafarroako gizarte eta kultur proiektuetarako

Barkos Lehendakariak eta banku-fundazioaren zuzendari nagusiak lankidetzaren hitzarmen bat izenpetu dute, eta haren barnean hezkuntza-jarduerak, zientifikoak edo ingurumenekoak sartzen dira ere

Asteazkena, 2016.eko uztailak 20

Nafarroako Gobernuko Lehendakari Uxue Barkosek eta "la Caixa" banku-fundazioko zuzendari nagusi Jaume Giró-k akordio bat sinatu dute gaur Iruñean; gizarte-ekintzan, hezkuntza-arloan, arlo zientifikoan eta kulturalean bi erakundeen arteko lankidetzaren jasotzen da bertan 2016. urteari begira. Hitzarmenean aipatzen denez, finantza-erakundeak Foru Komunitatean egindako inbertsio soziala indartuko du 2016an 13,5 milioira iritsi arte. Ekitaldian izan dira ere, Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparra eta Nafarroako CaixaBank-eko lurralde-zuzendari Ana Diez Fontana.



Barkos Lehendakaria eta la Caixa fundazioko zuzendaria, akordioa izenpetzen.

Hitzarmena sinatu ondoren, Nafarroako Lehendakari Uxue Barkosek la Caixak Nafarroarekin gizarte-ekintzaren arloan duen konpromisoa azpimarratu du. "Nafarroaren garapenarekin eta aurrerabidearekin duen konpromisoa, eta gizarte-arloan bereziki arreta berezia jartzen duena, Foru Gobernuaren lehentasun argia dena. Hitzarmen honen bidez, lankidetzaren bat sendotzeko aukera dugu eta, hari esker, gehien zigortutako eta ahuldutako kolektibo batzuen bizi-baldintzak hobetu ditzakegu".

"la Caixa" banku-fundazioko zuzendari nagusi Jaume Giró-k aipatu duenez, "Gizarte Ekintzak Nafarroan egindako inbertsioa nabarmen igo da azken urteotan; hala, entitateak Foru Komunitatearekin duen konpromiso sendoa agerian geratzen da. Nafarrentzako etorkizun hobea eraikitzen lagundu nahi dugu, aukera gutxien dituzten horiengan pentsatuz bereziki. Hortik dator eraldatzeko bokazioa duten programa sozialak lehenesteko erabakia".

Izenpetutako hitzarmenak "la Caixa"-ren Gizarte Ekintzako ekimenen lehentasun modura jartzen ditu: gizarte-

bazterkeriaren aurkako borroka; zailtasunak dituzten kolektiboen artean enplegua sustatzea; adinekoek gizartean parte hartzea eta haien zahartze osasungarria; gaixotasun aurreratuak dituzten pertsonen arreta integrala eta kulturaren zabalkundea, besteak beste.

Enplegua sustatzea

Zailtasunak dituzten kolektiboen artean enplegua sustatzeko programak, Incorpora, 323 lanpostu sortu zituen iaz, programa laguntzen duten Foru Komunitateko 12 enpresarekin lankidetzan. Horri Reincorpora programaren ekintza osagarria gehitu behar zaio; haren bidez, 2015ean gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbideak eskaini zitzaizkien 2015ean Iruñeko espetxeko 15 presori.

2.500 adineko baino gehiagok iragan ekitaldian antolatutako 116 ekintzarako batean parte hartu zuten, honako alor hauetan: autonomiaren sustapena, zahartze osasungarria eta mendekotasunaren prebentzioa "la Caixa" Gizarte Ekintzak sustatuta; lankidetzak-hitzarmenen bat dagoen Nafarroako adineko sei zentroetan egin ziren.

Gaixotasun aurreratuak eta haien senideak artatzeko programaren barnean lan egiten duten San Juan de Dios ospitaleko taldeak 400 paziente eta 592 senide artatu zituen 2015ean.

Iaz guztira 179 alokairu solidario sustatu ziren Nafarroa guztian.

Jarduera-ildo horiei entitateak beraien gizarte-ekimenen bidez babestutako proiektuak gehitu behar zaizkie; proiektu horietara 300.000 euro baino gehiago bideratu ziren 2015ean Foru Komunitateko erakundeek sustatutako 16 ekimen bultzatzeko.

151 boluntariok 67 jarduera antolatu zituzten Nafarroan boluntarioritza-programaren bitartez, helburu bikoitz batekin: gizartea hobetzen laguntzea eta aukera gutxien dituzten kolektiboen ongizatea lortzea.

Jasotako beste alderdi bat prestakuntzari eta hezkuntzari "la Caixa" estatuko eta nazioarteko gradu ondoko beken bidez emandako babes da (5 bekadun Nafarroan 2015ean), bai eta eduCaixa programaren bidez ere (Foru Komunitatean ematen den proiektua, eta iaz 57.227 ikaslek parte hartu zuten).

Hori guztia CaixaBank bulego-sareak zuzenean sustatutako 439 jarduerekin osatzen da; horretarako 1,5 milioi euro bideratu ziren.

Gainera, "la Caixa" Gizarte Ekintzak beste erakunde batzuek Foru Komunitatean egindako ekimen sozial, kultural eta zientifikoak babesten ditu 7 milioi euroko inbertsioarekin, Caja Navarra fundazioarekin lankidetzan eta elkarrekin egindako Gizarte Ekintzako akordio baten esparruan. Jarduera horien artean nabarmendu behar dira: Iruñeko Katedraleko klaustroa zaharberritzea; kultur guneei babes ekonomikoa ematea, Nafarroako Unibertsitateko museoari, Iruñeko Planetarioari eta Baluarte fundazioari, adibidez; eta Nafarroako Unibertsitateari, Nafarroako Unibertsitate Publikoari eta Urruneko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalari (UHUN) behin eta berriz babes ematen zaie.

"la Caixa" Gizarte Ekintzak eta Caja Navarra fundazioak elkarrekin egindako ekintza hori ikerketaren esparrura zabaltzen da, Foru Komunitateko punta-puntako zentroekin itunak sustatuz, honako hauekin adibidez: Nafarroako Unibertsitate Klinikoa, Ikerketa Mediku Aplikatuko Zentroa (CIMA) eta Miguel Servet fundazioa.

Kulturaren eta ezagutzaren dibulgazioaren eremuan, bi erakundeek pertsonen hazkundea sustatzen dute beraien erakusketa, musika eta arte eszenikoen programekin. 67.000 lagun baino gehiagok babestu



Ekitaldian izan dira ere, Laparra lehendakariordea eta Nafarroako Caixabank-en zuzendaria.

zituzten 2015ean Nafarroan elkarrekin antolatutako kultur proposamenak.

Galería de fotos



Elkarri eskua ematen, akordioa sinatu ondoren.